

Zer berri Arrano tabernara sartu dira ertzainak
Erreportaia Autobus gehiago jarriko dituzte

Supilean

SORALUZKO
HAMABOSTEKARIA
142. alea, 2006ko
urriaren 27an



Basoko altxorren bila



Balo Adatorry..



XI. GAZTAÑERRE AZOKA AZAROAREN 11an SORALUZEN

- 09:00etan Bedeinkapena
- 10:30etan Baba txapelketaren hasiera.
- 12:00etan Libreko bertso saioa
- 13:00ean Abesbatzaren emanaldia
- 14:30etan Bazkaria Gaztetxean
- 14:30etan Baserritarren bazkaria (Armendin)
- 14:30etan Herri-babajana kiroldegian.
- 19:00etatik 22:00etara Erromeria

Baba Txapelketan eta babajanean (12 euro) izena emateko:
Pil-pilean, Iratxo, Gaztelupe, Gila edo Arranoan.



Soraluzeko
Baserritarrak

Soraluzeko
Udala



Debemen
Elkartea



Pil-pilean
Euskara Elkarte



Soraluzeko
Gaztetxea



GOGORTUZ Fisioterapia Zentrua



**Lepoko minak
Erreuma
Erreabilitazioa
Kirol osteko errekupeazioa
Tendinitisak
Zaintiratuak**

Orduategia:
(goizez) 07:45etik 12:30etara
(arratsaldez) 17:00etatik 21:00etara

Oier Oregi Unamuno
Santa Ana 7
Tel. 943750022





ENARA AGIRRE

Behingoagatik bada ere... zorionak!

Goizeko bederatziak dira eta Martin, 40 urteko bilbotarra, mantso dihoa Nerbioi ertzetik, egunero bezala, gabardina zaharra soinean daramala. Gurasoek utzitako etxean bizi da eta lanerako ezgaitasuneko pentsio txiki batekin egin behar du aurrera. Garai bateko bizioen gehiegikeriek ez diote barkatzen eta, kaletik doala jendeak disimuloz begiratzen dio, errukiz. Baina errukia ez da Martinek behar duena.

Ordu berean semearen ohea egiten ari da Antonia 68 urteko eibartarra. Gazterik etorri zen Euskal Herrira senarrarekin hark lan on bat aurki zezan. Baina urteak aurrera joan ziren, semea hazi eta alargundu ostean, Antoniak, bakarrik bizitzea erabaki zuen. Semeak laguntzen badio ere, nekez heltzen zaio hilabetea pasatzeko.

Ismelda etxeko atea zabaltzen ari da neka-neka eginda. Gaur gauean lau bezero izan ditu eta azkenengoaren etxetik dator. Lan gogorra badu ere, ezin du alboratu, etxekoek bere diruari esker bizirauten dute eta. Pobreziatik ihesi etorri bazen ere, Europa aberatsak ez dio ames-

tutako oparotasunik eskaini eta irteerarik gabeko zirimola horretan dago preso; aurrerantz ezin egin eta atzera ezin bueltatu.

Horrela begiratuta, denak Euskal Herrian bizi badira ere, badirudi ezerk ez dituela lotzen. Bakoitza toki batean bizi da, jatorri anitzekoak dira, kezka ezberdinak dituzte eta errealitate propio bezain berezia daukate. Baina badago lotzen dituen beste ezaugarri bat: denak gure lehen mundu aberats honetako po-break dira eta laugarren mundu gertu bezain urruti hori osatzen dute. Lehen munduan bizi dira, baina ezin dituzte bertako aukera eta abantailak lortu; nahiz eta, hein handi batean, eurek sortuak izan.

Eguneroko bizitza gogorra badute ere, eta etorkizunak zalantzasz beteriko bide bat erakutsi arren, oraingoan badute pozteko arrazoi bat. Okasioak aginduta, eurretaz gogoratuko gara, urtean behin bakarrik bada ere, pobrezia-eguna pasatu berria da-eta. Beraz, behingoagatik bada ere... zorionak!!!

LEHEN MUNDUAN
BIZI DIRA, BAINA
EZIN DITUZTE BERTAKO
AUKERA ETA
ABANTAILAK LORTU



Argitaratzailea:
Pil-pilean Kultura Elkartea
Frontoi kalea 5. beheka, PK 27 - 20590 Soraluze
Telefona 943 75 13 04
comunidad: kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU
E-mail: pilpilean@euskalnet.net
Erredakzio burua: Jon Basauri
Erredaktoreak: Jon Basauri, Arianne Unamuno eta Maite Kintanilla
Publizitatea: Ane Larreategi
Logotipoa: Jon Gabilondo
Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena: 1.920 ale
Inprimategia: Gertu Koop.
Diseinua eta maketazioa: BOROBILE Zerbitzu Grafikoak
I.Z.K.-a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Pil-Pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritziaren erantzukizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



ERREPORTAIA

Autobus gehiago izango ditu laster Soraluzek. Aldundia Donostiarekiko lotura hobetzen saiatuko da, Plataformako kideekin 5 zerbitzu adostu ostean. Plataformako Mertxe Galarragak bere iritzia azaldu digu.

Zorion agurrak



Oier Gonzalez

Urriaren 11an,
3 urte

*Zorionak denon partetik
eta ondo portatu!*



Mirari Perez

Urriaren 30ian,
7 urte

*Zorionak pottola!
Etxekuen eta zure anai
Aimarren partez.*



Mayara Zarobe

Azaroaren 2xan,
4 urte

*Zorionak laztana!
etxekuen partez.*



Naroa Gil Ayora

Azaroaren 8xan,
3 urte

*Zorionak prexioxa!
Etxekuen partez.*



Iosu Pere Pinilla

Urriaren 21ian,
urtebete

*Zorionak pottolo!
Jarraitu barre horrekin
bazterrak alaitzen!
Muxu bat etxekuen
partetik.*



Irati Perez Claver

Urriaren 2xan,
5 urte


*Zorionak maittia!
Asko maitte zaittugun
etxekuen partetik.*



Iratxe Garai

Urriaren 28xan,
13 urte

*Zorionak, eta muxu handi
bat etxekuen partez!*



Ander eta Eneritz

*Urriaren 28an ezkonduko dira
Olatzen, Azpeitian
Egun ederra pasau
deizuela!!
Kuadrilako lagunenguz partez.*



Alejandro eta Josune Movilla Rosa

*Irailaren 16an jaiok
Ongi etorri!
Familiarenguz partez*

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUAK

1. Eskutitzak identifikatuta egongo dira; derrigorrezkoa da izen-abizenak agertzea.
2. Taldean datozen gutunak ere onartuko dira, taldearen izena adierazita beti ere.
3. Edonoren iritzia argitaratuko da bazterketarik gabe.
4. Ez dira onartuko biraoak, mehatxuak, irainak eta errespetu gabeko idatziak.
5. Pil-pilean Euskara Elkarteak ez da argitaratzen dituen gutun eta iritzien erantzule.

NORA BIDALI:

- E-posta: pilpilean@euskalnet.net
- Postaz: 27 kutxatilara
- Iratxo goxodendan utzi
- Pil-pileanen bulegora ekarri



Informazio gehiago
900 110 111 doako telefonoan
www.gipuzkoa.net/gazteria
Buletinen harpidetza !!!

Ikastaroak

- **Minusbaliotasunak dituzten pertsonak mugitzeko teknikak**
Kutxa (Donostia). Azaroaren 20tik 24ra. Goizez edo arratsaldez.
Iraupena: 10 ordu.
Prezioa: 35 euro.
Tfnoa: 943 40 45 60.
[kutxazabalzentroa@kutxa.es](mailto:kutzazabalzentroa@kutxa.es)

Lehiaketak

- **Giza eskubideei buruzko II. Argazki lehiaketa**
Gipuzkoako Argazkilari Elkarteak;
Gipuzkoako Foru Aldundia.
Gaia: Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaletik (1948) hautatutako 25. artikulua.
Epea: 2006-11-09.
Tfnoa.: 943 11 23 23.
<http://www.gipuzkoa.net>
- **Kartel Lehiaketa**
Inazio Bereziartua Musika Eskola.
2007ko instrumentu taldeen VI. "Elgoibarko Herria" lehiaketarako kartela aukeratzeko lehiaketa.
Epea: 2006-11-08.

Lana

- **Garbitzaileen lanpoltsarako Bergaran**
Bergarako Udala.
Eskolaratze-ziurtagiria eta 18 urtetik gora izatea. Oposaketa bidez.
Epea: 2006-11-03.
Tfnoa.: 943 77 91 00.
bergara@bergara.net

Jaiotakoak

- ALEXANDRA ORTEGA ORDAX
- AIERT LOSADA ALBERDI
- KEPA RODRIGUEZ RIVAS

Hildakoak

- CARMEN ELIZONDO BRAZAOLA

Zer irizten dotsazu?

Pasa den astean Pobreziaren Astea izan da. Euskal Herrian 900.000 lagunek jasotzen duten soldata pobreziaren mugaren azpitik dago.

Zer egin leike Euskal Herrixan pobrezia gutxitzeko?



Ane Muro
32 urte, langabezian

Banatu ein bihako litzake, batzuk larregi eta bestiak berriz oso gutxi daukelako. Hemen, hori batez be etxebizitzaren kasuan igartzen da, daren soldatekin oso zaila da eta.



Gorka Arriaga
39 urte, ertzaina

Nik nere inguruan ez dot pobrezia askorik ikusten, baina horrek ez dau esan nahi ez daonik, askotan kanpo geratzen baita. Gutxitzeko gobernuak hartu bihako leuke parte.



M^a Jesus Aranburu
56 urte, etxekoandria

Danak lan eittke aukeria egon bihako litzake, eta pobreziakin amaitzeko gobernutik eman bihako lirake lehenengo pausuak; aukerak, baliabidiak... jarritz.



Iosu Elorza
16 urte, ikaslia

Danon artian jente horri lagundu eta ez mespretxatu. Pobrezia egon badao, nahiz eta batzuetan laguntzarenbat jaso eta ez dogun igarri be eitten. Arazua larrixa da oso.



Fatima Mateos
61 urte, etxekoandria

Nik ez dot uste Euskal Herrixan erabateko pobrezia-rik dauanik, batzuk hobeto bizi dia, baina... Hala be, gobernuak neurrixak hartu bihako leukez.



Miguel Angel Deza
38 urte, langilia

Lan gutxiago einaz, lan extra barik eta abar. Horrela danondako lana egongo da eta. Nere inguruan behintzat ikusten dot pobrezia eta ez da brometarako arazua.



**Karta enkarguz,
jaunartzeak
eta bataioak**

EDURTZA Kafetegia
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

JABIER ALBERDI

HARATEGI
ARTISAU ERARA
ESPEZIALIZATUA

KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN
PRODUKTUETAN.



Errebal kalea 24
Tfnoa 943 75 19 32

Zubi Nagusia berrituko dute

Izartu II programaren barruan, urriaren 16an onartu zuen Udalak Zubi Nagusiko eraberritze lanen proiektua. Lehenengo, Zubiko lurra Kalebarren eta Santa Anakoa bezala ipintzen hasiko dira. Gero aparkalekua ilaran jarri eta espaloia zabalduko dute bi aldeetatik, oinezkoek leku gehiago izan dezaten. BBVA parean eta harategiaren parean eserlekuak kokatuko dituzte. Azkenik, oraingo zaborrontziak kendu eta Udaltzaingoen bulegoaren parean lurrazpiko 5 zakarrontzi jarriko dituzte. Zubipeko arkuak



ere argizatuta egongo dira. 4 hilabete iraungo dute lanek baina oraindik ez da hasteko eperik zehaztu. 438.579,15 euroko aurrekontua izango du proiektuak.

Berbalagun egitasmoan parte hartzeko

Euskaldun zaharrak eta euskaldun berriak hizketan jarriko dituen egitasmoan izena emateko epea zabalik dago. AEKko zenbait ikasle eta ikasle ohik parte hartuko du. Euskaldun Zaharrak



behar dira haiekin berriketaldiak egiteko. Izena emateko Pil-pileanekin harremanetan jarri edo AEKra jo. Azken eguna azaroaren 10a izango da

83 ikasle matrikulatu dira EPAn

Azken urteetakoari eutsiz, Helduen Hezkuntza Iraunkorrean 83 pertsonak eman dute izena 2006-2007 ikasturtean. Bertan, bigarren hezkuntzako ikasketez gain, euskara, gaztelera edo ingelesa ere erakusten dute. Eskulanetan 20 lagun ariko dira.



AGUR ESPILLA BASERRIA. *Duela bi aste bota zuten, baserri berria egiteko. Garrantzia handikoa izan da; herria bera sortu aurretikoa omen da, XII-XIII. mende ingurukoa, eta armarria, XVI. mendekoa, adituen ustetan. Baserri berria pareko zelaian eraikiko dute, lehengo armarri zaharra mantenduta.*



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren,10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE

Ion Murgizu Pinturak

MARGOKETA OROKORREAN

Empapelatuak

Estukoak

Fatxadak

Eskilarak eta patioak

Pintura industrialak

Tlf.: 943 75 1324

Mug.: 652 777 030

Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

Javier Alonso Zelaieta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K. Z. 20.000.434

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 • Tel. 943 75 16 13



Arranoan inbentarioa Auzitegi Gorenaren aginduz

Joan zen eguazten goizean, Udaltzainei abisua eman ostean, Arrano tabernaren inbentarioa egitera etorri ziren. Hego Euskal Herriko "herriko taberna" askotan bezala, Espainiako Auzitegi Gorenak batzorde judiziala bidali zuen, Ertzaintzaren babespean. Elkarrean aurkitutako guztiaren inbentarioa egin zuten eta barruan zeudenak identifikatu zituzten. Ez zuten materialik eraman. Ez zen inongo istilurik izan. Bien bitartean, 30 herritar inguruk pankarta zabaldu zuten "Errepresioa ez da bidea. Autode-




terminazioa" lemapean. Iluntzean ere elkarretaratzea egin zuten 40 bat lagunek Plaza Barrixan, gertatu zena salatuzko.

Jubilatuen Hilabetea ospatuko dute Itxaropenan

Urtero moduan, Itxaropena Jubilatuen Etxean hilabete berezia izango da azaroa, ekintzaz bete. Hilaren 9an Lizarrara irteera egingo dute (atzeratu egin dute-eta). Karta txapelketa azaroaren 13tik 16ra egingo da eta sari banaketa 17an. Izena emateko azken eguna azaroaren 10ean izango da. 80 urtetik gorakoen bazkaria 25ean izango da, eta izena Itxaropenan bertan eman daiteke.



"Txikiziñuen aurreko herri borrokak" bideo emanaldiak



Gaztetxeak bideo emanaldiak antolatu ditu urrirako eta azarorako. Bideoetako gai nagusia txikizioak eragiten dituzten

proiektuen aurrean, mundu osoan zehar martxan jarritako herri borrokak izango dira. Guztira bost bideo, barikuetan gaueko 22:30etan Plaza Barrixan.

Urriak 27: "Life in the fast line, the no M11 story". Londres inguruko M-11 autopistaren erai-kuntzaren aurkako bideoa.

Azaroak 3: "A Tornallom". Valentziako La Puntan portuaren haunditze lanen aurkako borroka, baratzeetako bizimodu tradizionalari eusteko.

Azaroak 10: "¿De quién es la calle?" Burgosko langile auzo batean aparkalekuak egiteko lanak gelditzea lortu zuten.

Azaroak 17: "Herriak bizirik" Itoitzeko auziari buruz.

Azaroak 24: "Fermalo e`possibile" Italia Iparraldean Abiadura Handiko Trenaren obrak gelditzea lortu duen herri borrokaren kronika.



Disenua eta Sormena

Polígono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 **BERGARA** (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak



Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46

SAN ANDRES Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak*



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

Juan Mari Arraindegia

*Eguneroko
arraina
eta konjelatuak*

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69



Debabarreneko Garraio Plana martxan jarri artean (abenduan), autobus gehiago izango ditu herriak. Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio Zuzendariak Soraluzerentzat behin-behineko autobus zerbitzua ahalik eta azkarren jarriko dutela adierazi zuen. Alkatetzak bere aldetik adierazi du, Aldundiak esandakoa beteko ez balu, Alkatetzak berak jarriko dituela autobusak.



Azkenean autobus gehiago Soraluzerentzat

Urriaren 26an Gipuzkoako Foru Aldundiko Kote Olaizola eta Plataformako 3 kide bildu ziren. Bertan, astelehenetik ostiralerako ordutegia aldatzea adostu zuten. 5 zerbitzu izango dira hemendik aurrera joan-etorriak egiteko.

Zerbitzu hauek baieztatu gabe daude oraindik, PESAk esan behar duelako zerbitzu berriak martxan jar ditzakeen ala ez. Autobusen orduak errespetatu eta goizago etorri gero, ordua izan arte itxaroteko eskaera helaraziko dio Aldundiak PESari.

Alkatetzaren informazio-orria

Debegesan hilaren 24an Garraio Mahaiaren inguruan izandako bileran, Debabarreneko Alkateak eta Foru Aldundiko Garraio Zuzendaria bildu ziren. Alkatearen izenean zabalduko informazio-orriak dioenez, "Soraluzeko udalerrira behin-behineko zerbitzua berehala jar dezatela exijitu genionean," Aldundiko ordezkariak, Kote Olaizolak, lehen bait lehen jarriko dutela adierazi zuen. Bestetik, ordezkariak berak esan zenez, Debabarreneko Garraio Plana abendu hasieran martxan jarri nahi dute.

Horren aurrean, Alkatetzak behin-behineko Soraluze-Eibar-



"Aldundiak jartzen ez badu, Alkatetza honek jarriko du abian Soraluze-Eibar-Soraluze zerbitzua"

Soraluze zerbitzua jarriko duela jakinarazi du, Aldundiak "gure eskakizunari jaramonik egingo ez balio azaroaren 2a baino lehen". Aurretik plataformako ordezkariekin bilduko dela esan du.

Debabarreneko Garraio Plana

Kote Olaizolak adierazi zuenez, abenduaren 1ean martxan jarri nahi dute Debabarreneko Garraio Plana, eskualdeko autobus zerbitzua beregituratu duena. Aurreratutakoaren arabera, Euskotrenekin ordu erdiro Eibarrekin lotura egongo da eta Mendarorako zerbitzua hobetuko dute, zehaztapenik eman ez badute ere. Hala ere, Soraluzeko eta eskualdeko alkateek oraindik ez dute plan horren edukien berririk, Aldundiak ez baitu Debegesako Garraioaren inguruko bileretan dokumenturik aurkeztu.

Astelehenetik ostiralerako ordutegi berria

Soraluzetik: 6:40, 8:30, 13:55, 14:50, 18:50

Donostiatik: 8:00, 13:00, 15:00, 19:00, 21:00

(Larunbatetan Donostiatik itzultzeko 20:00etakoak kendu eta 21:00etan izango da)

Mertxe Galarraga

SORALUZeko GARRAIO PUBLIKOAREN
ALDEKO PLATAFORMAKO KIDEA

“Gure
helburua
autobusak
lortzea da”



Ia bi hilabete pasatu dira auzi hau hasi zenetik. Balorazioa?

Denbora gehiegiz luzatu dela uste dut. Hala ere, denon elkarlanarekin lortu dugu azkenean nahi genuena, eta hori da garrantzitsuena.

Lan handia izan da Plataformarentzat?

Bilera asko egin behar izan dugu politikariekin, eta gutunak eta bestelako agiri mordoa ere bai. Plataformako kideok ez daukagu honelako kontuetan esperientziarik. Etorri ahala eman behar izan ditugu pausuak.

iruditzen zaigu mozioa plenoan aurkeztea.

Zertarako?

Herri osoak sinadurekin adierazi zuen auzi honetan partaide dela eta konponbidea nahi duela. Orain Udal batzarreko alderdi politikoek osotasunean autobus zerbitzua txarra dela erabaki dezaten nahi genuke.

Konponbiderik iritsiko al da?

Badirudi laster jarriko dituztela autobusak, Aldundiak eta Alkateak hala agindu baitute. Beranduenez

“Garraio Plana ezarri arte eta herriaren beharrak asetzen direla egiaztatu arte, jarraipena egingo dugu”

Herriaren laguntza jaso duzue?

Zorionez bai. Autobusen arazoa aspaldiko kontua izan da, eta iraileko aldaketekin, edalontziak gainezka egin zuen. Jendea berotu egin zen eta asko mugitu. Plenoko jendetzarekin hasita, sinadura bilketa eta kontzentrazioan argi ikusi zen herriaren babesa. Herritarrek autobusen benetako beharra daukate.

Orain mozioa aurkeztuko duzue Udalean.

Aldundia eta Udala pausuak egiten ari badira ere, guk hasitako bidea jarraitu nahi dugu, eta beharrezkoa

ere, azaroaren 2rako behin-behineko zerbitzua martxan jarriko da, Soraluze eta Eibar artean.

Behin-behineko zerbitzua jarritakoan, desegin egingo da Plataforma?

Momentuz bai, gure helburua autobusak lortzea izan delako. Baina jarraipena egingo diogu, Debabarreneko Garraio Plana ezarri arte eta honek herriaren beharrei erantzuten diela egiaztatu arte. Hala ez bada, berriz elkartuko gara eta herriaren aldetik orainarteko erantzuna egongo dela espero dugu.

AUTOBUSEN AUZIA EGUNEZ EGUN

IRAILAK 1: Debagoieneko Garraio Plan berria ezarri zuten. Soraluzeren zerbitzua kaltetu zuen, murrizketa eta aldaketekin.

IRAILAK 7: 140 herritar baino gehiago Udal Batzarrean, konponbide eske. Soraluzeko Garraio Publikoaren Aldeko Plataforma sortu zen. Hurrengo asteetan, adierazpenak egin zituen Plataformak, kekak eta beharrak azalduz Udalari eta Aldundiari.



IRAILAK 14TIK 17RA: 2972 herritarren sinadura jaso zituen Plataformak eta Arartekoari, Aldundiari eta Alkateari bidali zizkieten.



IRAILAK 19: Kontzentrazio jendetsua Plaza Barrixan.



URRIAK 4: Plataformak eta Alkateak Aldundiarekin bilera. Autobus gehigarriak agindu zituzten, abenduan Debabarreneko Plana ezarri artean.

URRIAK 17: Aldundiak jakinarazi zuen ez zutela autobus gehigarriak jarriko.

URRIAK 24: Debegesako Garraio Publikoaren mahaia bildu zen. Kote Olaizolak aldaketak agindu zituen.

URRIAK 25: Alkateak informazio-orria zabaldu zuen, Aldundiak autobusak jartzen ez baditu, berak ipiniko dituela esanez.

Kontrargik 20 urte bete ditu

1986ko urriaren 24an sortu zen Kontrargi Argazki Kolektiboa. Geroztik, 20 urteotan argazki rallyak eta erakusketak antolatu izan dituzte urtero, eta postalak ere ateratzen dituzte. Herriko zenbait ekimenetan parte hartu dute: esaterako, "Sorluzeko Baserriak gidaliburua"ko argazkiak edo bi urtetik behin Korrikakoak ateratzen. Gaur egun, 10 lagun baten dira Errabal kaleko lokalean, astelehenero iluntziko 8etan. "Etorri nahi duenarentzat ateak zabalik" daudela adierazi dute.

Aurtengo Gaztainerre Azokan ez da argazki lehiaketarik izango, baina



urte bukaerara bitartean, zenbait ekimen antolatuko dituzte: erakusketak (azaroaren 13tik 25era, eta abenduaren 11tik 23ra, kiroldegiko erakusketa gelan) eta Argazki Rallya azaroaren 19an.

Poltsikoko antzerkiak



Udalak antolatuta, ostiralero antzerkia izango da ikusgai azaroan zehar. Aurtengo emanaldi guztiak antzezlanak izango dira. Lan guztiak gaueko 22:15etan liburutegiko Hall-ean antzeztuko dituzte, lehenengo biak euskaraz eta azkeneko biak gaztelerez.

Euskarazkoak:

- "Erreleboa" Txalo teatroa. Algezirasen soldaduska egiten ari diren bi euskaldunei buruzko antzezlan

- "Larru Haizetara" Ez dok hiru bikoteatro konpainia

Euskaldunek sexuaren inguruan dituzten topiko eta tirabiren inguruko ikuskizun dibertigarria.

Gaztelerezkoak:

- "Al Pánico" Latirili teatroa Andrazkoek egindako showa.

- "Ya saldrá" Monólogos cara a cara. Eguneroko errealitatearen hausnarketa komikoa, bakarriketa moduan.

Bertso bazkaria Txurrukan

Hilaren 4an Unai Iturriaga eta Arkaitz Estiballes bertsolarien eskutik, bertso bazkaria izango da Txurruka jatetxean. Larreategi anai-arrebek lagunduta, 14:30etan hasiko da baz-

karia eta 20 euroko prezioa izango du (22 bazkide ez direnentzat). Izena eman nahi duenak Pil-pilean, Arrano, Gila edo Gaztelupera jo beharko du.

KULTUR GIDA

AZAROAK 3

- "Erreleboa" Antzerkia. 22:15etan Liburutegiko Hall-ean

- "A Tornallom" bideo emanaldia. 22:30etan Plaza Barrixan

AZAROAK 4

- Bertso bazkaria. 14:30etan Txurruka Jatetxean.



AZAROAK 10

- "Larru Haizetara" Antzerkia. 22:15etan Liburutegiko Hall-ean

- "¿De quién es la calle?" bideo emanaldia. 22:30etan Plaza Barrixan

AZAROAK 11


- XI. Gaztainerre Azoka

AZAROAK 13TIK 25ERA

- Kontrargiren erakusketa. Kiroldegiko Erakusketa gelan.

AZAROAK 17

- "Al Pánico" Antzerkia. 22:15etan Liburutegiko Hall-ean



- "Herriak bizirik" bideo emanaldia. 22:30etan Plaza Barrixan

AZAROAK 19

- Kontrargiren Argazki Rallya

AZAROAK 24

- "Ya saldrá" Antzerkia. 22:15etan Liburutegiko Hall-ean

- "Fermalo e' possibile" bideo emanaldia. 22:30etan Plaza Barrixan

GILA TABERNA
Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik
Gosarixak eta pintxo goxo goxuak !!
Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

HNOS. BENITO ANAIAK
ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK
Eskatu presupuesto konpromisorik gabe
Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Egun bat perretxikotan

Perretxikozale koadrila bati jarraipena egin diogu

Udazkena da Euskal Herrian, perretxikozaleen urtaroa. Temperatura eta hezetasuna egokiak direnean, perretxikuek (onddoak batez ere) erruz urtetzen dute gure baso eta mendietan. Aurten ere horrela gertatu da: zestoak bete perretxiko ekarri dituzte Nafarroa eta Arabako mendietatik. Guk ere ezagutu nahi izan dugu nola bizi duten perretxikozaleek esperientzia hau eta zueri kontatu nahi izan dizuegu. Horrelakoa izan daiteke perretxiko egun bat.

Asteazkena goizeko 6: 45, hitzordua Gila tabernan

6:45etan geratu gara lau perretxikozaleekin, Gila tabernan. Elkar agurtu, kafea azkar-azkar hartu eta alde egin dugu, autorantz. Eguna argitzen duenerako perretxikotan hastea nahi dute, lekurik onenetara inor aurretik joan ez dakien. Animoso egin dugu Nafarroarako bidea, eguna ona izango delako esperantzaz.

8:30etan heldu gara.

Berehala onddo familia bat topatu dugu

Heldu garenean, bide ertzean aparkatuta zegoen auto bat ezagutu du Antoniok. "Honek hamen egiten dau lo, edo?", galdetu du. Auto asko dago bide ertzetan; 20 bat kontatu ditugu. "Señale ona" esan du Andonik, animosoan, "autua daganian perretxikua be egoten da". Asmatu du. Lehenengo pagadian sartu eta onddo familia bat topatu dugu, 8 bat ale alkarren ondoan.

12:00etan harizti magikora iritsi gara

Basoan luze ibili eta gero, tarteka ale batzuk batuaz, harizti emankor batera heldu gara. "Han txapel bat, han beste bat, han beste bi, hiru..." . Begiak irten beharrean, onddoak batu eta batu hasi gara, aztoratuta. Perretxiko festan murgildu gara buru-belarri. "Hau da hau gozadia" esan du Aitorrek, "sano-sano dare".

13:00etan autora, hamaiketakoa egitera

Zestoek pixua hartu dute eta autora joatea erabaki dugu, atsedean hartu eta hamaiketakoa egitera. Zezina, atuna, intxaurrak, txokolatea, ogia eta ardoa. Bapo geratu ostean, zalantza izan dugu perretxikoak autoan laga eta atzera basora bueltatzeko. "Nik behintzat nahikua daukat, neregaitik plazentziara" proposatu du Iñakik, eta



Iñaki, Jose Antonio, Aitor eta Andoni perretxikoak erakusten

danok ados egon gara. Buelta.

15:00etan etxean perretxikoak garbitzen

Lehenbailehen egitea komeni da azken lan hau, denborekin perretxikoak alperrik galtzen dira eta. Lurra, mamorroak, zati gogorrak eta galduak kendu, eta onddoak gertu daude rebuelto bat egiteko, kozinatu eta kongelatzeko edo adiskide eta lagunei emateko.

HARRAPARIARENDAKO

Bastoi: bedar artean miatzeko, begirada zentratzeko, aldapak igotzeko eta sugeak uxatzeko oso lagungarria.

Zestoa: Perretxikoak poltsa barruan estropeatu ez daitezen eta tarteetatik esporak eror daitezen. Elegantea ere bada, beteta dagoenean batez ere.

Kutxilloa: sustarra moztu eta perretxikoak garbitzeko.

Hamaiketakoa bi eratak izan daiteke: barraxo energetikoak eta freskagarria,



EZINBESTEKO PACK-A

edo/eta sardinilla lata -txerrikiren bat, ogia eta ura/ardoa.

Erropa egokia: fraka gogorrak, sasietatik babesteko; mendiko botak lur malkartsuetan erosoago ibiltzeko; zira euriteetatik babesteko.

GPS-a, brujula eta mapa: basoa handia eta ezezaguna bada, nundik nora zabiltzan jakin dezazun.

Sakeleko telefonoa: aurreko hirurak erabiltzen asmatzen ez baduzu, Ertzantzaren erreskate zerbitzuetara hots egiteko.

Urpekaritza ikastaroa Kiroldegiko igerilekuan



Azaroaren 4 eta 5erako urpekaritza ikastaroa antolatu dute Kiroldegiko igerilekuan. Instruktoareak José Antonio eta Luis Miguel Plata izango dira. Bi saioek hiru orduko iraupena izango dute: larunbatean 16etatik 19etara eta igandean 10etatik 13etara. Bautismo bakoitzaren iraupena 15/30 minutukoa izango da. Prezioa: 10 euro bazkideentzat eta 12 bazkide ez direnentzat.

Mendi Taldearen bilera eta igandetako irteerak

Mendi Taldeak bilera antolatu du taldearen etorkizunaz hitz egin eta arduradun berriak izendatzeko. Orain Mendi Taldeaz arduratzen direnek diotenez, "urte asko goiaz lan hau egitten eta atzetik datozen gaztien txandia heldu da". Datorren urriaren 30ean izango da batzarra, arratsaldeko 8etan, Kiroldegiko erakusketa gelan. Arduradunen esanetan, "interesa daukan edozein gerturatu leike, inungo konpromiso barek".

Igandetako irteerekin jarraitzen dute ikasturte berrian. Urtea bukatu artean 3 irteera daude antolatuta:



- **Azaroak 5:** Andutz 612m. (Itziar-Deba)
- **Azaroak 19:** Deskarga-Soraluze. Ondoren baba-jana
- **Abenduak 17:** Jarindo 896m. (Gatzaga)

EMAITZAK

ESKU PILOTA

LASKURAIN

- Capellan - Zubieta 13
- Uriarte - Laskurain 22

ATXOTEGI

- Leitzan, DV torneuan,
- Atxotegi - Otxandorena 17
 - Gorka - Beroiz 22

JAUREGI

Min hartuta dago, besoan fibra haustura eginda. 3 astean ez du jokatu.

FUTBOLA

- Sora 1 - Eibartarrak 1 (erreg.)
Gola Juliantxok.
Saikapenean bigarren daude
- Sora 6 - Eibartarrak 0 (jub.)
Saikapenean lider dira
- Ikasberri 1 - Sora 1 (kad.).
Saikapenean azken postuetan

AGENDA

FUTBOLA

- Zapatuan**, Aretxabaletan 3: 30etan
- Aretxabaleta-Sora (erreg.)

Zapatuan, Bergaran 16:30etan

- Bergara- Sora

Zapatuan, 11etan

- Sora- Bergara

PLACENCIA
KONTSUMO KOOPERATIVA

Esku eskura! Telf: 943 75 13 45

Telefonoa 75 24 09

ARRANO
tabernia

"Giro euskalduna eta sanua"

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

etxera

kutxa
gizarte ekintza

IÑAKI IÑARRA
HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze

EGIANTZUTAKO GANADU-HARAGIA

CERTICAR
CERTIFICACIÓN DE PRODUCTOS CARNES

CARNE DE VACUNO CERTIFICADA

Iker Galarza

Erreleboa antzezlaneko Aktorea

Datorren ostiralean, azaroak 3, Txalo teatro konpainiak "Erreleboa" antzezlan taularatuko du kiroldetegi liburutegi hall-ean, Poltsikoko Antzerkia zikloaren barruan. Algezirasen soldadu dauden bi lagun euskaldunen arteko jarduna kontatzen da antzezlanean. Iker Galarza (Amezketan, 1977) aktorearekin hitzeging dugu antzezlanaren inguruan



"Erreleboa momenturik onenean dago. 50 bat emanaldi egin ditugu eta Josebak eta biok asko gozatzen dugu aktuatzen. Igarriko duzue"

Zer gertatzen da labur-labur esanda, Erreleboan?

Erreleboa, funtsean, denbora pasa bat da. Bi euskaldun soldaduzka egiten ari dira Algezirasen eta gau batez elkarrekin guardia egitea tokatzen zaie. Antzezlanean zehar ikusiko da zer gertatzen den eta zer nolako harremana sortzen den bi ezezagun hauen artean.

Antzezlan hau espainieraz da bertsio originallean. Nola moldatu duzue euskerara?

Caballerok idatzitako obran bi protagonistak erdaldunak dira. Guk bi euskaldun jarri ditugu, eta noski, enfokea aldatu egiten da. Soldaduzkaren absurdua mantentzen da, baina ikusiko duzue antzezlan oso honeraturata dagoela.

Soldaduzkaren inguruko antzezlan... komedia al da?

Komedia da bai, eta jentek parre asko egiten du. Pentsa daitekeena ez bezala, ez dugu Sargento Chus-

keroren parodiarik edo antzerakorik egiten. Gure istorioa soldaduzkan gertatzen da, baina berdin gerta zitekeen mendian; adibidez, perretxiko bila joandako bi mendizale galdurekin.

Zer aurreratu dezakezu pertsonaien inguruan?

Biak soldaduzkan daude baina egoera oso desberdinetan. Bati 15 egun falta zaizkio bukatzeko eta bestea hasi-berritan da. Bataren konfidantza eta esperientzia bigarrenaren urduritasun eta beldurrarekin dago kontrapuntuan.

Telebistan ere ikusten zaitugu, Vaya semanitan edo Goenkalen. Nun gustorago, telebistan edo antzezlanean?

Telebistak eguneroko jana ematen digu, baina gustorago antzerkian nabil. Publikoaren erantzuna zuzeneko da, eta hori gauza handia da; elkarrekin barre egitea gozada bat da.

Gustoko aktore bat, pelikula bat eta antzezlan bat

Joseba Usabiaga, El Maestro (Cantinflasen) eta Ama begira zazu.

Gonbidatu plazentziatarrak zinemara joan daitezten

Soraluzetarrei esan nahi diet barre egingo dutela eta ordu ta laurden ziztu batean pasako zaiela; historian berehala sartuko dira, kasik nahi barik. Gainera, "Erreleboa" momenturik onenean dago orain. 50 bat emanaldi egin ditugu, eta Josebak eta biok asko gozatzen dugu aktuatzen. Igarriko duzue.

GURE ZERBITZUAK

- Ortodontzia ikustezina
- Inplantzak

ELIZPE

Hortz Klinika

- ✓ DOANEKO BERRIKUSKETAK
- ✓ FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
- ✓ KONPROMISURIK GABEKO AURREKONTUA

ETA ORAIN... LAGUN ARO, PADI (HAURREN ARRETARAKO HORTZ PROGRAMA)

Elizburu 3, behea • SORALUZE • Tel. 943 75 25 67

IRATXO
GOXOTEGIA

EGUNKARIA
ETXERA ERAMATEN DIZUGU
GEHIAGO ORDAINDU GABE

ETXABURUETA, 4
20590 SORALUZE
tlf: 943 75 13 20

Argazki zaharra



Iturria: Federico Eguren.

Sesmako partiduak 1976xan

Kiroldegi parian zeguan Sesmako frontoia oraindala urte asko bota bazezen be, orduko oroitzapenak geratzen dira oindiokan. Gazte asko ibiltzen zan orduan eta txapelketa garrantzitsuak jokatzan zian.

Argazkixan, **ezkerretik eskumara:** Iñigo Eguren, Javi Perez, Rafa Idigoras, Ramon Gallastegi.

Lehiaketa

Musika bandak...

Aurreko aleko erantzuna

Mende hasieran sortuak, liberalen musika bandia "Paz y Labor" zan, eta karlistenak, lehenengo "La Margarita" izena zekan eta gerora "San Ignacio" izena hartu zeban. Azken honek, lehenengo ekitaldixa 1913an euki zeban Arrasaten eta 50 urtian jardun zeban plazaz plaza.

HERRIAREN HISTORIA

GALDERA

Zer sortu zuen "Dama Micaela" k?

- Benefizentzi-etxea (*Asilo Benéfico*)
- Kiroldegia
- Ikastola

Aukeratu erantzun zuzena.

Deitu **943 75 13 04** ra

edo e-mail bat bidal ezazu:

pilpilean@euskalnet.net



Mutua General de Seguros

Loli Nieves García

Santa Ana, 13 • SORALUZE
Tel. 943 75 14 57 - 646 522 659
E-maila: mdnievas@mgs.es

SARIA

Norberarendako Aseguru bat

AURREKO ALEKO IRABAZLEA
Gorka Tornos

SARIA
Fisioterapia saio bat
Gogortuz zentroan




MABE
ILEA PAINDEGIA

**I ESTETIKA
I SOLARIUM**

Errabal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE



Belarrak

Loradenda eta belardenda

Santu guztien egunerako eskaerak egiteko **deitu:**
Telf. 943 75 30 11



Ugaraxo

2006ko urria




Udazkena urre koloretan



Kaixo lagunok:

1go mailako ikasleak gara. Gure ikastetxea aztertzen gaude. Ikastetxean Haur hezkuntzakoak eta lehen hezkuntzakoak gaude.

Dauden lekuak eta pertsonak zenbatu ditugu.




LEKUAK	ZENBAT
Ikasgelak	20
Jantokia	1
Bulegoa	2
Jolastokiak	3
Komunak	7
Liburutegia	1
Aretoa	1
Laguntza gelak	4
Plastika gela	1
Musika gela	1
Ingeleseko gela	1
Irakasle gela	2

PERTSONAK	ZENBAT
Haur hezkuntzako ikasleak	127
Lehen hezkuntzako ikasleak	155
Irakasleak	39
Idazkaria	1
Jantokiko langileak	5
Garbitzaileak	3

Konturatuko zineten ikastetxe honetan pertsona asko gaudela lanean. Besterik gabe, agurtzen zaituztegu. Laister arte.

- A laranja
- B berde argia
- C laranja
- D urdin argia
- E beltza
- F urdin iluna
- G arrosa
- H morea
- I berde iluna
- J gorria
- K horia




TXIKI - INKESTA

Perretxikuak badakizu zer diren?
Ezagutzen dituzu? Gozoak al dira jateko?

EGOITZ PLACENCIA, 11 URTE

Nere aita batzutan juaten da bila. Lehengo egunian Nafarroatik igual ekarri zittuan 5 kilo: onguak, txanpixak eta piñatelak... Ni be batzutan juaten naiz, baina aurten ez. Nere anaiari txanpixak gustatzen jakoz eta neri piñatelak.



IBAI KORTABARRIA, 11 URTE

Aurten behin bakarrik juan naiz, eta gitxi; kilua baiño gitxiago. Onguak, gibelurdinak, saltsak eta beste klase bat. Aitak domekan 10 kilo ekarri zittuan, onguak gehixenak. Asko dagationian gustatzen jata batzera juatia, bestela aspertu egiten naiz.



SARA HERNANDO, 11 URTE

Mota askotako perretxikuak dare mendixan, batzuk benenosuak. Nere aittittak ongo asko hartzen ditu, asko gustatzen jako esposiziñuak ikustera juatia. Gero, aittittak emondako perretxikuekin amak tortillia egiten dau.



BORJA SAN JOSÉ, 11 URTE

Mendixan urtetzen dabe, eta batzuk pozoitsuak dira. Txikixak dira eta txapela borobila dake. Etxian jaten doguz, afaltzeko. Tiok ekartzen doskuz. Marroiak eta zurixak dira, baina nik ez dakit perretxikuen izenak. Sartagiñian oso onak dare.



AINTZANE GALLEGO, 11 URTE

Mendixan urtetzen dabe, urrian. Neri gustatzen jataz. Aurten juan gara hartzera Karakatera, aita, ama, anaia eta ni. Perretxikuak zurixak dira, eta pixkat marroiak. Batzuk ez dare zabalduta oindiok. 4 poltsa bete genduzen.



JULIA PIREZ, 11 URTE

Borobilak dira, eta kertena dake. Nere aittitta eta amamak jaten dittue. Neri ez jataz gustatzen. Plaza Zaharrian behin arbola baten onduan perretxikuak zeren eta makila batekin apurtu egin zittuen, txarrak ziralako.



GORA UDAZKENA!! (5. mailakoak)

Olerki hau ere ikasi dugu, oso polita da:

LAGUNAK LAGUNEKIN
JOLAS ORDUETAN
GALDU ZEIN IRABAZI
EGUN GUZTIETAN

LAGUNAK LAGUNEKIN
UMORE ONAKIN
GALDU ZEIN IRABAZI
BETI LAGUNEKIN



Aupa lagunok,


5 urteko ikasleak gara eta berriro gaituzue hemen gure gauzatxoak kontatzeko prest.

Egun eguzkitsu batean, marraskiloek egiten duten bezala gu ere kanpora atera ginen. Tren bideko azken masustak jan genituen, baita mahats txiki batzuk probatu ere eta bat-batean lurrian hainbat hosto, intxaur eta fruitu asko ikusi genituen, eta orduan konturatu ginen udazkena sartu berria zela, urre koloreko urtaroan geundela!

Berehala bilketarekin hasi ginen.

Eskolara joan ginenean, intxaurrek denda txokoan jarri genituen.

Hostoekin, berriz, ondo sailkatu ondoren, paperen artean jarri genituen eta gainean liburu pisutsuak. Gure asmoa, ondo lehortuta daudenean, beraiekin eskulan eta bilduma dotoreak egitea da.





LIMPIEZAS TREJO S.L.

Garbiketa Industrialak

Errekalde, 30 behea

Telf.: 943 75 25 57

Fax: 943 75 25 56

20590 SORALUZE

Garbiketa orokorrak

Garbiketa industrialetan espezializatua

Bulego eta lantegien mantenimendua

Makina garbiketak

Garaje garbiketak

Obra amaierak

Marmol eta terrazoen distiratzea

Graffiti garbiketa

Lurzoru handien errazketa eta fregatuak



SORALUCE

Fresaketa teknologia



SORALUCE
GRUPO DANOBAT

SORALUCE S.Coop. • Osintxu auzoa • P.O.Box. 90 • E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel. +34 943 769076 • Fax: +34 943 765128 • Web: www.soraluce.com

Poltzikoko Antzerkia



DOHAIN !

Erreleboa



Txalo teatroa

- Azaroak 3, ostirala, gaueko 10:15ean.
- Liburutegiko hall-ean.
EUSKARAZ

Egilea: Ernesto Caballero.
Aktoreak: Iker Galarza eta Joseba Usabiaga.
Zuzendaria: Begoña Bilbao.

Larru haizetara



Ez dok hiru
Bikoteatro
Konpainia



- Azaroak 10, ostirala, gaueko 10:15ean.
- Liburutegiko hall-ean.
EUSKARAZ

Egilea: Patxo Telleria.
Aktoreak: Patxo Telleria eta Mikel Martinez.
Zuzendaria: Aitor Mazo.

Antolatzaileak:



Sorluzeko
Udala

**Kultura eta
Gazteria Batzordea**

Dantza Taldearen

50. Urteurrena

Noizbait dantza taldean ibili zara?

Etorri azaroaren 17an 19.00etan,
Goiko Eskolako jolastokian egingo den bilera-entsaiora!



Gero eta gehiago gara!!!

Antolatzaileak:



**URRATS
DANTZA
TALDEA**
SORALUZE



Sorluzeko
Euskal Jai
Batzordea

Laguntzaileak:

**HERRIKO DANTZARI
eta TXISTULARIXAK**